



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ERREKLAMAZINOEN BATZORDEAK URTEKO TXOSTENA AURKEZTU DAU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- Maria Barrena buru dauen batzordeak 7 erreklamazino ebatzi ebazan, eta 71 informazino-eskaera jaso ebazan herritarren aldetik.
- Oposizinoako Batzarretako taldeek 2016an sortutako organu hori “gehiago zabaltzea” eskatu dabe, informazinoa ukatzeagaitik herritarrek aurkeztutako erreklamazinoak ebazteko.

(Bilbon, 2021eko zezeilaren 16an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak 2020ko ekitaldiko Erreklamazinoen Batzordearen urteko jarduera-memoria aurkeztu dau gaur. Igaz, batzorde horrek 6 erreklamazino eta 3 salaketa aztertu ebazan. Horreetatik, zazpi ebatzi ziran, eta bi onartezinak zirala adierazo zan. Aurton, Foru Aldundiak informazinoa ukatzeagaitik herritarrek egindako erreklamazinoak ebazteko ardura dauen organo horrek beste erreklamazino bi ebatziko ditu, Maria Barrena batzordeko presidentek Batzarretako taldeen aurrean egindako agerraldian azaldu dauenez.

Gardentasunari buruzko Foru Arauaren arabera, batzordeak urtero aurkeztu behar dau Bizkaiko Batzar Nagusietan informazino publikoa eskuratzeko eskaeren ganeko datuak be jasoten dituan urteko balantze hori. Erreklamazino kopurua “txikia” bada be, Barredak azaldu dau urtetik urtera informazino eskaerak “handitzen” ari dirala. 2019an “40” jaso ziran, igaz “71” izan ziran, eta horreetatik “58 onartu ziran, 3 onartezinak zirala adierazo zan, 2 ezetsi egin ziran eta 8 eskatzailek atzera egin eben”, txostenean jasoten danez.

Barredak sisteman “arazo bat” dagola onartu dau; izan be, herritarrei “gaitza egiten jake zein bide erabili erabagitea” Aldundiaren erantzunak bilatzeko, arazoaren arabera. Horregaitik, batzordeak aldaketak egin ditu erakunde horren funtzionamentua azaltzeko eta errazago ulertzeko. Barredak azaldu dauenez, salaketarako inprimaki espezifikiko bat sartu da, erreklamazino-formularioak egokitu dira eta webguneko salaketen eta erreklamazinoen ganeko informazinoa argitu da, baita egoitza elektronikoaren administrazino-prozeduren katalogoan jasotakoa be.

Oposizinoako Batzarretako taldeek (Talde Berezia-PPB, Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu) deitoratu egin dabe herritarren artean batzorde horren inguruan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dagon “ezjakintasuna”, eta “gehiago zabaltzea” eskatu dabe, organua “erabilgarriagoa” izan daiten. Foru Gobernua eusten daben taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) erakundearen lana autortu dabe, eta egindako aldaketek bere lana “zabaltzeko” balio izatea gurako leukie, horrek “zerbitzua hobetzea ekarriko dauelako”.

UGAO-MIRABALLES ETA ARRANKUDIAGA-ZOLLO

Beste alde batetik, Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak Ugao-Miraballesko armari heraldikoa aldatzeko proposamena onartu dau, Udaleko osoko bilkurak hartutako erabagiagaz bat etorritz. Armariaren ezaugarri barrien artean, “urrezko zelai baten gainean, gul-torre bat dago, sable galdara batez trebatua”. Osoko bilkurak berretsi beharko ditu aldaketa horreek, indarrean jar daitezcan.

Gai-zerrendan, Arrankudiagako udalerraren izenaren aldaketea be sartu da, Zollo izena gehitzeko. Aldundiak proponiduta, batzordeak, Batzarretako taldeen baiespenagaz, udalaren proposamena baztertzea erabagi dau, proposamenean izen barria zehatz zein izan behar zan argi ez egoala ikusita. Euskaltzaindiaren gomendioetan oinarrituta, udalerrri barriak “Arrankudiaga-Zollo” izena izan beharko leuke, Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak azaldu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA COMISIÓN DE RECLAMACIONES PRESENTA EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA SU INFORME ANUAL

- **La comisión presidida por María Barrena resolvió 7 reclamaciones y recibió 71 peticiones de información de la ciudadanía.**
- **Los grupos junteros de la oposición piden que se haga “una mayor difusión” de este órgano creado en 2016 para resolver las reclamaciones ciudadanas por denegación informativa.**

(*Bilbao, a 16 de febrero de 2021*). La comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha acogido hoy la presentación de la memoria anual de actividad de la Comisión de Reclamaciones en materia de transparencia correspondiente al ejercicio 2020. Durante el año pasado, dicha comisión examinó 6 reclamaciones y 3 denuncias. De ellas, siete fueron resueltas, mientras que dos fueron declaradas inadmisibles. A lo largo de este año, este órgano encargado de resolver las reclamaciones ciudadanas por la denegación informativa de la Diputación foral, resolverá otras dos reclamaciones, según ha explicado la presidenta de la comisión María Barrena en su comparecencia ante los grupos junteros.

Según la Norma foral de Transparencia, la comisión tiene la obligación de presentar todos los años en las Juntas Generales de Bizkaia este balance anual en el que se recogen también datos sobre las solicitudes de acceso a la información pública. Si bien el número de reclamaciones sigue siendo “bajo”, Barreda ha explicado que cada año las solicitudes de información “van en aumento”. De las “40” que se recibieron en 2019, pasaron a ser el año pasado “71”, de las que “58 fueron admitidas, 3 fueron declaradas inadmisibles, 2 fueron desestimadas y en 8 se produjo el desestimiento de la persona solicitante”, según se recoge en el informe.

Barreda ha admitido que existe “un problema” en el sistema, ya que a la ciudadanía “le resulta complicado decidir qué canal utilizar” para buscar respuestas de la Diputación en función de cuál sea la problemática. Por eso, la comisión ha introducido cambios de cara a explicar el funcionamiento de este organismo y facilitar su entendimiento. Barreda ha explicado que se ha incluido un formulario específico de denuncia, se han adaptado los formularios de reclamaciones y se ha aclarado la información sobre denuncias y reclamaciones de la página web, así como la que se incluye en el catálogo de procedimientos administrativos de la sede electrónica.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Los grupos junteros de la oposición (grupo Mixto-PPB, Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu) han lamentado el “desconocimiento” que existe entre la ciudadanía en relación a esta comisión y han pedido que se haga “una mayor difusión” para que el órgano sea “más útil”. Los grupos que sustentan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas vascos) han reconocido la labor del organismo y esperan que los cambios introducidos sirvan para hacer “más extensiva” su labor, “ya que redundará en una mejora del servicio.”

UGAO-MIRABALLES Y ARRANKUDIAGA-ZOLLO

Por otro lado, la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia ha aprobado la propuesta de modificación del escudo heráldico de Ugao-Miraballes, de conformidad con el acuerdo adoptado por el pleno de la corporación. Las nuevas características del escudo incluyen, “sobre un campo de oro, una torre de gules, adiestrada de una caldera de sable”. Estos cambios deberán ser ratificados por el pleno para que entren en vigor.

En el orden del día se incluía también el cambio de denominación del municipio de Arrankudiaga para añadirle el término Zollo. A propuesta de la Diputación, la comisión ha decidido por asentimiento de los grupos junteros, retirar la propuesta municipal al detectar que en la propuesta no quedaba clara cuál debía ser exactamente la nueva denominación. En base a las recomendaciones de Euskaltzaindia el nuevo municipio debería llamarse “Arrankudiaga-Zollo”, según ha apuntado la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea.